

# Ezpalak

JON TORNER

## Film laburrak ARGIA.com-en



AITZOL ARAMAIOREN *Terminal* (2003), Ane Muñoz Mitxelenaren *Basurdea* (2002) eta Aitor Oñederrak zuzendutako *Jostuna* animaziozko filma ARGIA.com-eko Film Laburrak izeneko gune

berezian dituzue ikusgai. Aurrenekoa Roberto Mosoren *La Chica de la terminal* ipuinean oinarrituta dago, eta Ramon Bareak, Marivi Bilbaok, Loli Astorekak, Txema Sandovalek eta Jose Antonio Nielfa 'La Otxoa'k parte hartu zuten filmaketan. *Basurdea* komediako protagonistak Anartz Zuazua, Xinboren Alkain eta Ernesto Barrutia dira. Bi arrantzalek basurdea aurkitu dute mendian perretxikotan zebiltzala...

Film labur guztiak ikusteko: [www.argia.com/multi-media/laburrak](http://www.argia.com/multi-media/laburrak).

Bestalde, *ARGIA 1919-2009: 90 urte euskal prentsan* web gunean ([www.argia.com/argia-90](http://www.argia.com/argia-90)) atal berria sortu dugu: *Kolaboratzaileak*. Zeruko ARGIA eta ARGIAKO kazetari eta kolaboratzaileei galdera honi labur-labur erantzuteko eskatu diegu: "Zuretzat zer da ARGIA?". Allande Boutin, Anuntxi Arana, Baleren Bakaikoa, Bernardo Atxaga, Elixabete Garmendia, Emilio Lopez Adan, Iñaki Martínez de Luna, Josu Iztueta, Joxemari Ostolaza, Juan Mari Arregi eta Sustrai Colinaren erantzunekin ireki dugu *Kolaboratzaileak* saila.

## Zinemira: euskal zinema Donostiako Zinemaldian

ZINEMIRA-EUSKAL ZINEMAREN PANORAMA, horixe da aurrerantzean Donostiako Zinemaldiak euskal zinemari eskainiko dion saila. Bederatzi film proiektatuko dituzte atal berriaren barruan: *Ander* (Roberto Caston zuzendariarena), *Checkpoint Rock* (Fermin Muguruza eta Javier Corcuera), *Sukalde kontuak* (Aizpea Goenaga), *La máquina de pintar nubes* (Patxo Telleria eta Aitor Mazo), *Itsasoaren alaba* (Josu Martínez), *Life and Film* (Arkaitz Basterra), *Rough Winds* (Andrea Olabarria), *Umurage* (Arkaitz Gamarra) eta *Zuzendu, mesedez!* (J.M. Gutierrez). Bestalde, Imanol Uribe zuzendariak (argazkian) Zinemira saria jasoko du Donostian, hilaren 23an egingo den Euskal Zinemaren Galan.



**Animadeba 2010** egitasmoaren baitan, Debako Udalak I. Gortina Lehiaketa jarri du abian. Animaziozko zinema jaialdira nahi adina kortinila aurkez daitezke, edozein teknikarekin egindakoak. Gaia librea izango da, baina, beti ere, jaialdiaren promozioari zuzendua. Gortinak aurkezteko epea azaroaren 13an amaituko da. Irabazleak 700 euroko saria jasoko du.

**Malenkonía** taldearen aurreneko lan luzea plazaratu du Gor diskoetxeak: *Hegazkidak dakar ekaitza*. Diskoa doan deskargatu ahal izango da aurki Interneten, [www.malenkonía.com](http://www.malenkonía.com) helbidean. *Haizirik gabeko eguna* izeneko aurrerapen kantua jada deskarga daiteke.

**Soweto Gospel Choir** talde hegoafrikarrak kantua, perkusioa eta dantza tradizionalak uztartuko dituen ikuskizun koloretsua eskainiko du abenduaren 13an Iruñeko Baluartan.



### ● Asisko Urmeneta marrazkilaria eta Unai Iturriaga bertsolaria periferiaz aritu dira **Berrian**:

**Asisko Urmeneta:** «Periferian egoteak alde oso ona du: errazagoa da batere jainkotua ez dagoen egoera bat deskralizatzea. Periferian gaudenok, berritik sortzeko eta probokatzeko pasaporte bat dugula iruditzen zait. Ez litzateke hain erraza Goierriatik halako zirtokeriak egiten ateratzea. Etxetik eta inguruan betitik euskaraz eta bertsoa edo antzerkia ezagutu izan duenak zailagoa du haustura; aldiz, basamortutik datorrenak, errazagoa».

**Unai Iturriaga:** «Kultur mailan, zirkuitu handiagoa dago gaur egun periferian, erdigunean baino. Besteak beste, hiriburu eta jende eta mugimendu asko duten herri gehienak hartzen dituelako periferiak. Beharbada, jada, periferia erdigunea da (...) Gu bertsoara joaten garenean beti dugu berehalako erantzun bat jendearen aldetik, eta ondo joaten bada itzel, erdipurdi badoa tira, eta gaizki eginez gero azkar-azkar galtzen gara handik... baina frakaso oso gutxitan leporatzen zaigu».